

2025 - 2026 ikasturtea

# Donostia



ESKOLAKO  
AGENDA  
2030

Aurtengo Donostiako Eskolako Agenda 2030ean bi ziklotako programari amaiera eman diogu. laz aukeratutako Garapen Jasangarrirako Helburua 11. izan zen: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK. Helburu zabala izanik, atal batean oinarritu gara: **MUGIKORTASUN JASANGARRIA**.

2024-2025 ikasturtean gaiaren inguruko diagnostikoa egin genuen eta horrekin batera, ondorio batzuetara iritsi ginen, lehentasun batzuk markatuz. 2025-2026an berriz, lehentasun horietatik abiatuta esku-hartze plana diseinatu eta gauzatuko dugu.

Aurtengoarekin, EA2030 programak 21 urte bete ditu eta urte horietan, Donostia ezagutzeko gai ugari jorratu izan dira.

## HIRU ESKU-HARTZE PLAN

### ANTIGUO-IBAETA

#### KALEA OINEZKOENTZAT

"Parking-Day" eta Sentsibilizazio kalejira.

*Ikastetxeak: Luberri BHI, Jakintza ikastola, Orixe ikastola eta Santo Tomas Lizeoa.*

### EGIA-GROS

#### SEGURTASUNA BIZIKLETAN

Bizikletada eta Sentsibilizazioa Sagüesen.

*Ikastetxeak: Lauaizeta BHI, Maria Reina ikastetxea, Mundaiz ikastetxea eta Zubiri-Manteo BHI.*

### EKIALDEA

#### BIDEGORRIAK EKIALDEAN

Denon artean mapa osatu dugu.

*Ikastetxeak: Altza BHI, La Anunciata ikastetxea, Bideberri BHI, Mendiola ikastetxea, Herri Ametsa ikastola eta San Luis-La Salle ikastetxea.*



## LANEN ANTOLAKETA ETA ESKOLEN ARTEKO FOROAK

Donostiako ikastetxeak auzo desberdinetan kokatzen gara eta auzo bakoitzaren arazoak desberdinak izaten dira. Horregatik, bi ikasturte hauetako lanketa auzoka egin dugu eta auzo bakoitzeko ikastetxeetatik jasotako ideiak elkartzeko, azaroaren 26an eko-ordezkariek ikasturteko **Eskola arteko Lehenengo Foroan** bildu ginen. Hortik aurrera eman beharreko urratsak adostu genituen.

Gai bakoitzaren inguruan eskematxo bat prestatu eta adostu genuen zer egin nahi genuen, nola egin eta zein behar genituen udalaren aldetik. Hori ikasturteko bigarren hiruhilekoan landu genuen.



Aste Santu ondoren bakoitzaren proposamenak elkartzea izan da auzo bakoitzeko zeregina, **Eskolen arteko Bigarren Foroetan**. Bertan adostu dugu zein izango den egingo dugun esku-hartzea, noiz eta nola. Hori da hain zuzen ere kontatuko duguna hurrengo lerroetan.



## ESKU-HARTZEAK KALERATZEKO EKINTZAK

Aurtengo EA2030 programa amaitzeko, egindako lanketa eta ikasitako guztia hiritarrekin partekatzeak duen garrantziaz jabetuz, auzo bakoitzean esku-hartze bat planteatzen dugu.

### ANTIGUO-IBAETAko ikastetxeen ESKU-HARTZEA

#### KALEA OINEZKOENTZAT

“Parking-Day” eta Sentsibilizazio kalejira.



**Parking Day** ekintzaren bidez, oinezkoentzako espazioa aldarrikatu nahi dugu. Horretarako, Luberrri eskolako sarreraren aurrean, hau da Xalbador Bertsolari kalearen zati batean, kotxeak aparkatzen duten gunea jolaserako erabili nahi dugu, Jakintza eta Santo Tomaseko ikasleak gonbidatuz. Bi ikastetxe hauek helburu

jakin bat dute: eskolako bide seguruak aldarrikatzea. Horretarako, bakoitza bere eskolatik irtengo da **kalejiran** eta Luberrikoekin elkartuta hainbat ekintza partehartzaile burutuko dituzte kalean. Dagoeneko ari dira hainbat neurri hartzen eskoletara kotxe gutxiago hurbiltzeko eta Udaletxeko laguntza ezinbestekoa ikusten dute segurtasuna bermatzeko bidearen hainbat gunetan eta ikasleak oinez etortzera animatu daitezen.

### EGIA-GROSeko ikastetxeen ESKU-HARTZEA

#### SEGURTASUNA BIZIKLETAN

Bizikletada eta Sentsibilizazioa Sagüesen.



**Bizikletada** egitearen helburua, bizikleta kalean ikusarazteko eta mugikortasun eredu aldaketa bat eskatzeko tresna izan nahi du. Gure ikastetxeetatik abiatuta eta taldean, Sagüeseraino jaitsiko gara. Ohiko bidegorri-ibilbideetatik haratago, hiriko kaleak hartzea helburu duen ekintza bateratua egin nahi dugu.

#### Zer lortu nahi dugu?

- Mugikortasun jasangarria sustatu, hau da, bizikleta garraiobide garbi, merke eta osasungarri gisa aldarrikatu nahi dugu.
- Bide-segurtasuna. Txirrindularientzako azpiegitura hobek (bidegorriak, aparkalekuak) eta autoen aurrean segurtasun handiagoa aldarrikatu nahi dugu.
- Hiri-espazioa berreskuratu: Kaleak autoentzat baino, pertsonentzat direla erakusteko eta erabilera publikoaz gozatzeko.
- Osasuna eta kirola: Ariketa fisikoa eginez, ohitura osasungarriak bultzatu nahi ditugu.



**Amaitzerakoan, Sagüesen egingo dugu elkarteratzea eta hiritarrak sentsibilizatzeko informazio puntu bat jarri nahi dugu.**

## EKIALDEA osatzen dugun ikastetxeen ESKU-HARTZEA


### BIDEGORRIAK EKIALDEAN

Denon artean mapa osatu dugu.

Eki alde, Altza, Intxaurrondo eta Bidebieta auzoek osatzen dute eta gure auzoetara ez da bidegorria iristen.

laz egindako diagnostikotik abiatuta eta gabezi horretaz oharturik, aurtengoan bidegorri proposamenak egin nahi dizkiogu udalari.

Proposamenak egiterakoan, jabetu gara beti ez dela erraza.



Horren berri zuzena udaletxeko mugikortasun teknikari batek eman digu. Berarekin elkartu ginen eta proposamenak partekatu genituen. Oso saio interesgarria izan zen. Orain gure bideak frogatzea geratzen zaigu eta egingarriak ote diren ikustea.

## UDAL ESKOLA FOROA

Aipaturiko esku-hartzeak ekainean burutuko dira kalean, baina aurretik, maiatzaren 13an, **Udal Eskola Foroa** ospatuko da eta udal ordezkariak gure lanen berri emango diegu. Donostiako alkatea, mugikortasuneko zinegotzia eta beste hainbat zinegotzi eta teknikari egongo dira gure aurkezpenean.



**DENOK BATERA HIRI JASANGARRIAGO BATEN ALDE!**